



YOUTUBE, TWITCH ETA COVID-19

16. Txostena
2021eko martxoa

YOUTUBE, TWITCH ETA COVID-19

Ikusiker Panela osatzen duten UPV/EHUko eta UPNAko ikasleei ikus-entzunezko edukien inguruko hainbat gairi buruz galdetu diegu: youtube eta twitch-en erabileraz, eta baita koronabirusa agertu eta urtebetera gai honen inguruko aspektu batzuei buruz ere (plataforma eta aplikazioen erabileraz eta koronabirusaz informatzeko bideez). Txosten honetan datu horiek jasotzen dira.

1. Ohar metodologikoak


Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitario hauek modu iraunkorren eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako ikasleak biltzen ditu panelak.

Txosten honetan aurkituko dituzu 2021eko martxoaren 23tik martxoaren 26ra bitartean luzatutako galdera-sortaren emaitzak. Jasotzen duen informazioa ikus-entzunezkoen kontsumoari eta serieak ikusteko ohiturei buruzkoa da. Inkesta honen emaitzak ustiatzerakoan, 864 erantzun baliozko hartu dira kontuan (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

2. Ikusitako azken edukiak

Ikasleei ikusi duten azken edukia noiz ikusi duten galdetzean, gehienek afalostetik aurrera ikusi dute erantzun dute (% 65,8k), eta nahiko pareko banatzen dira goizean eta bazkalordutik afalordura bitartean ikusi dituztenak (%14,0 eta % 20,2 hurrenez hurren).


1. Irudia – Ikusi duzun azken bideo ala programa, zein ordutan ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Honi gehitu behar zaio, non ikusi duten galdetuta, ia guztiak etxean zeudela momentu horretan (% 96,2). Bestelako lekuetan ikusi dutela erantzun dutenak oso gutxi dira.


2. Irudia – Zein lekutan zeunden eduki hori ikusi bitartean?



Iturria: Ikusiker Applika +

Nondik ikusi duten galdetutakoan, telebista tradizionala da indar handiena hartu duen aukera, % 31,9k aukeratu baitute, bigarren tokian streaming plataformek hurbiletik jarraitzen badie ere % 28,2rekin. Hirugarren lekuan Youtube gelditzen da (% 17,3) eta hortik aurrerakoek askoz zifra baxuagoak dituzte: "Nahieran telebista zerbitzuak" % 7,8k aipatu dituzte, Movistar+ % 2,9k, Twitch % 2,7k, Google % 2,6k eta Instagram % 2k, hauen atzetik gelditutakoen %1 baino gutxiago batu dutelarik.


3. Irudia – Aipatzen ari zaren bideoa, programa, reel-a, story-a edo beste motatako ikus-entzunezko hori, zein plataforman ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Edukiaren hizkuntzari dagokionez, ia hamarretik zortzik (% 78,7k) diote gaztelaniaz ikusi dutela, eta % 15,6k ingelesa aipatzen du. Ikus-entzunezkoa euskaraz ikusi dutenak, % 2,2 izan da.


4. Irudia – Aipatzen ari zaren hori, zein hizkuntzatan ikusi zenuen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Orokorrean bideoak edo programak ikusteko erabiltzen diren gailurik ohikoenak bi dira: telefono mugikorra eta ordenagailu eramangarria. Bakoitzaren alde egin du inkestatuen herena pasatxok, mugikorraren kasuan % 36,7k eta ordenagailu eramangarriari dagokionez % 36,4k. Segidan, telebista pantaila handia (Smart TV) dator % 14,2arekin, eta laugarren lekuan tableta gelditzen da % 9,3arekin.

5. Irudia – Orokorrean, bideoak edo programak ikusteko, zein da gehien erabiltzen duzun gailua?




Iturria: Ikusiker Applika +

3. Youtube

Youtuben azkena ikusi duten edukiari buruz galdera batzuk egin zaizkie segidan. Lehenengo eta behin, Youtube martxan izan duten bitartean aldi berean zertan aritu diren galdetu zaie. Gehienek adierazi dute pantailara begira egon direla, besterik egin gabe (% 38,2k); beste modu batera begiratuta, ia hamarretik sei beste zerbait egiten aritu da Youtube martxan izan duen bitartean. Jarduera nagusien artean, % 21,2 jaten egon da, % 15,2 ikasten edo etxeko lanak egiten eta % 8,9 etxeko txukunketa lanetan ibili da.


6. Irudia – Youtube martxan zenuen bitartean, zertan ari zinen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Youtuben gustukoenak diren kategoriak, inkestauen erdiek baino gehiagok aukeratuak, bi dira: “youtuberrak, gamerrak eta vloggerrak” eta “elkarrizketak” (% 56,7k eta % 52,6k aukeratuta). Segidan datoz “komedia, memeak eta parodiak” (% 36,4), “zinea eta serieak” (% 33,8), ariketa fisikoa (% 29,5), makillajea eta moda (% 21,1) eta podcastak eta irratia (% 21,1). Hortik beherako aukera guztiak inkestauen bostenak baino gutxiagok aipatu ditu.


7. Irudia – Zeintzuk dira Youtuben gustukoen dituzun gaiak edo kategoriak? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Erabileraren maiztasunari buruzko galdera erantzun dutenen artean, ia hamarretik bederatzik astean behin baino gehiagotan erabiltzen du Youtube. Are gehiago, % 58,2k esan du gutxienez egunean behin erabiltzen duela (% 36,8k egunero eta beste % 21,4ak egunean behin baino gehiagotan).


8. Irudia – Zenbatero erabiltzen duzu Youtube?



Iturria: Ikusiker Applika +

Plataforman pasatzen duten denborari dagokionez, hiru laurdenek ordubete edo gutxiago pasatzen dutela adierazten dute, % 51,1ek 30 eta 60 minutu artean eta % 23,1ek ordu erdi azpitik.


9. Irudia – Orokorrean, Youtube ikusten jartzen zarenean, zenbat denbora egoten zara?



Iturria: Ikusiker Applika +

Aukera izanez gero Youtuben denbora gehiago edo gutxiago pasatzeko, gehienek orain arte igaro izan duten denbora bera pasatuz jarraitzea hobetsiko luketela diote (% 59,7k). Hala ere, heren batek denbora gutxiago igaro nahiko lukeela adierazi du (% 23,6k apur bat gutxiago eta % 10,6k askoz denbora gutxiago).


10. Irudia – Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke Youtube ikusten?



Iturria: Ikusiker Applika +

la guztiek telefono mugikorra aipatzen dute Youtube ikusteko erabiltzen dituzten gailuen artean (%89,8k) eta bi herenek ordenagailu eramangarria (% 66,2k) adierazi dute. Horiek biak dira erabiltzen diren gailu nagusiak, besteak ez baitira gehiegitan aipatu: tableta % 18,4k, telebista pantaila % 16,0k, mahaiko ordenagailua % 7,8k eta bideo-kontsola % 1,4k.


11. Irudia – Zein gailu erabiltzen duzu Youtube ikusteko? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Youtuben zer ikusi aukeratzeko orduan gomendioak nondik jasotzen dituzten pentsatuta, % 73,4k adierazten du Youtubek berak proposatutako edukiei erreparatzen diola, eta % 65,5ek lagunek egindako gomendioak jarraitzen dituztela. Hirugarren postuan aldiz, sare sozialetan esaten direnak aipatu dituzte (% 35,9k). Beste aukera guztien kasuan (webguneak, plataformak edo hornitzaileak, familia, komunikabide tradizionalak, publizitatea eta telebista tradizionala), oso gutxik aipatu dituzte gomendioak jasotzeko iturri moduan.


12. Irudia – Youtuben zer ikusiko duzun erabakitzeko orduan, nondik jasotzen dituzu gomendioak? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Bideoetan gehien entzuten den hizkuntza, inkestatuen hiru laurdenaren kasuan, gaztelania da. Faltza den beste ia laurden osoa ingelesa aipatu dutenek osatzen dute, euskara % 1,5k adierazita eta frantsesa edo beste hizkuntza bat % 1,7k jarrita.


13. Irudia – Youtuben ikusten dituzun bideoetan, zein da hizkuntza nagusia?



Iturria: Ikusiker Applika +

Youtube baloratzeko eskatuta, ikasleek plataformari 7,1eko batez besteko nota ematen diote 0-10 eskala batean. Ia bi herenek 7 edo 8ko puntuazioa eman diote.

14. Irudia – Youtuberi buruzko balorazio orokorra eman beharko bazenu, nola nolako jarriko zenioke?




Iturria: Ikusiker Applika +

4. Twitch

Twitch erabiltzen ez dutenen edo oso gutxi erabiltzen dutenen kopurua oso handia da (% 72,4), baina kasu honetan erabiltzen dutenengan jarriko da arreta. Inkestatuen % 27,6k Twitch erabiltzen duela dio, eta zehazki % 14,2k astean behin baino gehiagotan erabiltzen du. Hartara, atal honetako galderak Twitchen erabiltzaile diren pertsoneri egin zaizkie.


15. Irudia – Twitch erabiltzen duzu?



Iturria: Ikusiker Aplikak +

Twitchen eskaintzen diren kategorietatik gustukoena bi dira oso nabarmen: “bideo-jokoak” eta “just chatting (bakarrizketak, elkarrizketak, Q&A...)”, bakoitza Twitcheko erabiltzaileen hiru laurdenak baino gehiagok baititu gustuko. Hurrengo kategoria gustukoena “talk showak eta podcastak” dira, % 27,2k aipatuta, hauen ondotik “special events” eta “kirolak” kategoriek bakoitzak % 14,2 hartzen duelarik..


16. Irudia – Zeintzuk dira Twitchen gustukoena dituzun gaiak edo kategoriak? Aukera anitza



Jarraitzen diren Twitch kontuek, gehienbat, gaztelania dute hizkuntza (% 84,5) eta beste ia guztiek ingelesa (% 11,7). Euskara aipatzen duten kasuak % 1,7 dira.

Iturria: Ikusiker Applika +


17. Irudia – Jarraitzen dituzun edo ikusten dituzun Twitch kontuak, zein hizkuntzatan daude?



Iturria: Ikusiker Applika +

Egun normal batean, Twitch ordu-erdi baino gutxiagoz erabiltzen dute erantzuleen % 43,5ek eta % 35,1ek ordu-erdi eta ordubete bitarte; hau da, hamarretik ia zortzik ordubete azpitik erabiltzen duela adierazi du.


18. Irudia – Egun arrunt batean, guztira zenbat denbora pasatzen duzu Twitchen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Erabiltzen diren gailuei dagokionez, Twitchera konektatzeko bi gailu erabiltzen dira nagusiki: telefono mugikorra eta ordenagailu eramangarria (inkestatuen % 65,5ek eta % 58,0k aipatu dituzte hurrenez hurren). Hauen oso atzetik gelditzen dira mahaiko ordenagailua (% 13,0) eta tableta (% 11,8), eta gutxien telebista pantaila (% 7,6) eta bideo-kontsola (% 7,6) erabiltzen dira.


19. Irudia – Zein gailu bidez konektatzen zara Twitchera? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Streamer-ei buruz galdetzean, zehazki zortzi kanalen ezagutzaz galdetu da. Oro har, erantzuleen artean gutxi ezagutzen dituzte eta sartu dira inoiz beren kontuan. Aipatuena AioraProbatxoa izan da, erantzuleen artean % 3,3k adierazi baitu ezagutzen duela eta sartu dela inoiz bere kontura (8 kasu guztira). Segidan ARKKUSO dator, % 2,5ek aipatuta. Hirugarren lekuan, eta % 1etik gora gelditzen den azken streamer moduan, pubguitar dago (% 1,7k aipatuta).


20. Irudia – Streamer hauetatik, zeintzuk ezagutzen dituzu eta beraien kontuan sartu zara inoiz? Aukera anitza



Iturria: Ikusiker Applika +

Twitchi, batez beste, 7,5eko puntuazioa ematen diote erabiltzaileek 0 eta 10 bitarteko eskalan. 7 eta 8 balioetan kokatzen dira erdiak (% 52,0), baina 9 eta 10 balioak aukeratu dituzte beste laurdena pasak (% 27,9k), Youtuberren kasuan baino hamar puntu gehiagok.

21. Irudia – Twitcheri buruzko balorazio orokorra egiteko aukera bazenu, nolako nota jarriko zenioke?



Iturria: Ikusiker Applika +

5. Koronabirusa

Inkesta hau egin den garai beretsuan, duela urtebete, iritsi zen koronabirusa unibertsitate hauetako ikasleen bizitzetara. Urtemuga aprobetxatuta, 2020an egin ziren galdera batzuk berriro formulatu dira, antzekotasunak eta desberdintasunak ikusteko. Segidan datozen datuek informazio interesgarria eskaintzen dute urtebeteko tartearekin errepikatu direlako eta ezaugarri zehatz batzuk dituen komunitate baten ohiturak eta iritziak adierazten dituztelako; hala ere, kontuan izan behar da ez direla pertsona berak eta, ondorioz, ez dela luzetarako ikerketa bat, paneleko kideak aldatu egin direlako.


Egunerokoan erabiltzen dituzten zerbitzu, aplikazio eta baliabide batzuei buruz galdetu zaie lehenengo. “Ez dut erabiltzen” aukeran kopuru txikiena duenetik handienera duenera bitarte ordenatuta, emaitza nahiko antzerakoa jaso da 2020an eta 2021ean. Erabilienak bezala adierazi diren bi aukerak “sare sozialak (Instagram, Twitter, Facebook, Youtube...)” eta “aplikazioak” izan dira: % 99,4ko eta % 89,7ko erantzunarekin hurrenez hurren. Eskaintzen zaien denborari dagokienez ere, ikasleek bi aukera hauetan igarotzen dute denbora gehien: egunean bi ordu baino gehiago pasatzen dituzte inkestatuen % 56,7k sare sozialetan eta % 18,9k aplikazioetan.

Bigarren lekuan, “web orrialdeak” eta “plataforma digitalak (Netflix, HBO, Filmin...)” datoz, inkestatuen % 80 inguruk erabilia. Web orrialdeetan eguneko ordubete baino gutxiago pasatzen dutela diote ia erdiek (% 47,1ek), baina aldiz plataforma digitaletan pasatzen den denbora-tartea askoz anitzagoa da: % 26,k ordubete azpitik igarotzen du, % 32,8k ordubete eta bi ordu artean, eta beste %21,9ak bi ordutik gora.

Hirugarren, telebista tradizionala (Telecinco, ETB, La Sexta...) agertzen zaigu. Honen kasuan, inkestatuen hamarretik zazpi adierazi du ikusten duela, baina denbora tarte laburragoa eskaintzen diote orain arte aipatutako beste aukerekin alderatuta (plataforma digitalen paretsu): % 41,4k ordubete azpitik eta % 22,5ek ordubete eta bi ordu artean.


Amaitzeko, gelditzen diren beste kategorien kasuan gehiago dira erabiltzen ez dituzten inkestatuak erabiltzen dituztenak baino: egunkarietako webguneak, Nahieran zerbitzuak / A la Carta, bideojokoak, erakundeen web ofizialak eta ordainpeko beste zerbitzuak.

22. Irdia – Zenbat denbora dedikatzen diezu egunero zeregin hauei?



Koronabirusari buruzko informazioa biltzeko iturri fidagarrienak, erantzun duten ikasleen iritziz, bi dira: egunkarietako webguneak (% 31,1ek aukeratuta) eta telebista tradizionala (Tele 5, La Sexta, ETB, TVE...), % 29,0k aukeratuta. Segidan, % 9,2k sare sozialak aukeratu ditu. Beste kasu guztietan zifrak oso baxuak dira: irrata % 2,0k aipatu du, Nahieran zerbitzuak / A la Carta % 0,7k eta aplikazioak % 0,7k.

23. Irudia – Koronabirusari buruzko informazioa bilatzeko, zein da zure iritziz informazio-iturririk fidagarriena?



Iturria: Ikusiker Applika +

Koronabirusari orain ematen dioten garrantziaz galdetuta 0 eta 10 bitarteko eskala batean, 7,4ko batezbestekoa jaso da. Puntuazioei erreparatuta, inkestatuen % 37,4k 9 edo 10 balioak aukeratu ditu, eta beste % 34,7k 7 edo 8.

24. Irudia – Zenbaterainoko garrantzia ematen diozu ORAIN koronabirusari?

